

ERNIO'KO OTSOAK

GIPUZKOA'KO toki erditsubenean bezela dadukagu Ernio oraiñ, eta len Irnio deritzayen, mendiya. Aundiyenetakoa da mendi au gure lurbira (probinzi) onetan; anei (milla) ta irurogei neurki (metro) ditu itsasoz goora, mendirik tontorrenetan seigarren mallan dagoalarik. Baitaere ospatsuba da guziz mendi au, bai lenago ta bai oraiñ ere gure egunetan. Lenago, kondairak itzegiten dubalako beraz askotan, ta oraiñ. bertan dauden gurutze ta uztayagatik. Aomen aundiko niendi onetan gertatu ziraden bada berealasen esango ditudan otso atzitzeak.

Anei zortzireun eta emeretzigarren (1819.n) urteko asieran Jan-guain'en azpiyan iru otsokume atzitu zituzten ingurubetako baserritar-
rrak, arrak ziraden bi, ta emea bestea.

Urte bereko (1819-go) Azaroa'ren amazzpiyan, Errezil'go artzai batek, berak egin zuban zurezko arrapagalluan (zepoan), larogeita zazpi aztagako (librako) otso aundi ta tsit odolzale bat atzitu zuban Etu-meta'ko gañean, makilka erailtzen zubala.

Urte berean, edota 1819-garrengo Lotazilla'ren (Abenduba'ren) ogeita seyan, Migel Inazio Ezeizatarrak ta bere semeetan gaztenak, Inazio Gorostidiarrak, Juan Batista Pagolatarrak eta Albiztur'ko basetse Arrozpide-gaiko beste Juan Batista Pagolatar maisterrak, suizkillioen (eskopeten) bidez larogeita lau, aztagako (librako) beste otso aundi bat ill zuten Ernio'ko goyetan.

Anei zortzireun eta ogeigarren (1820.^a) urteko Ilbeltza'ren bedertzian, Juan Batista eta Jose Inazio Albizuarrak, Gorostizu'ko maisterrak, eta Juan Jose Ugartemendia Telleriarrak, balazko lenengo zunpandan (tiruan) ill zuten beste otso izugarri bat Ernio'ko gurutze ondoan.

Besteak bañon zarragoa zirudiyen otso onek; eta aurretik esandako otso aundi biyak bañon argalagoa zalarik, larogeita zortzi aztaga (libra) egin zituban alaere neurriyan.

1818-1819 eta 1820-garren urteetan kalte aundiyak egin zituzten otso oyek ardi ta beorretan, baitaere asto ta auntzetan. Gure egunetan otsoen gordegiyak Aitzkorri ta Aralar mendiyetan ezpada ez daude, ta elurtza audiyetan bakan batzuben ikusten dirade dabilzala an ta emen, jan billa, ozterik (jenderik) ez dan mendiyetan.

Esan ditudan otso atzitzeak, moldizkiratu gabeko agiri zar sinisgarrik aundiyeneko batean arkitu nituban.

PRADERE'TAR BLAS, *apaizak*.

